

JAIOTZAK

Jaiotzak Eguberrietako pasarte baten edo batzuen irudikapenak dira, eszenatoki batean jarritako figura eta osagarrien bidez eraturakoak.

Elizetan sortu ziren, batetik, Gizakundearen Misterioa irudietan jartzeko eta, bestetik, fededunentzat ulerterraza egiteko. Geroago zabaldu egin ziren, ordea, eta etxeetan ere jartzen hasi ziren.

JAIOTZA NAPOLITARRAK

Napolin, jaiotzek bilakaera berezia izan zuten **XVIII. mendean** zehar. Karlos III.a erregearen zaletasuna zela eta, Eguberrietan erakutsi ohi ziren instalazio jori eta oparoak modan jarri ziren nobleziaren artean.

Jaiotza napolitarraren berezitasunak hauek dira: **errealismoa** eta **gertaera herrikoien** gailentasuna. Gai sakratua aitzakia baino ez da Napoliko kaleetako egunerokotasuna erakusteko.

ARTISTA NAPOLITARRAK

Jaiotzak artisten familiako lantegietan egiten ziren eta, horrenbestearainokoa zen eskaera ezen seriean ekoizten zirela. Eskultoreek, margolariak, zilargileak, brodatzaileak eta zeramikariek, bakoitza bere espezialitateaz arduratuta, lan oso eta kalitatezkoa eskaintzen zuten.

Figuren buruak ospe handiko artistek egiten zituzten, benetako artelanak bezala; artista horietako askok sinatu ere egiten zituzten.

GASTEIZKO JAIOTZA OBREAREN HISTORIA

Félix Alfaro Fournier karta fabrika ospetsuaren zuzendari eta arte bildumagileak Italian erosi zuen Jaiotza hau eta 1952. urtean Arabako Foru Aldundiari eman zion dohaintzan.


Urteetan zehar, Arabako Arte Ederren Museoa zaindu eta erakutsi zen, Carlos Sáenz de Tejada artistak sortutako basamortuko paisai batean. 2003. urtetik hona Gasteizko Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoko bildumaren zati da, eta bertan muntai ugari izan ditu.


Egunoa, Arabako Jaiotzazaleen Elkarteak egina da, Napoliko jaiotzen tradizioari jarraituz.




ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA

Sortzez Garbia Katedral Berria
Cadena y Eleta kalea, 01008 Vitoria-Gasteiz

 **MUSEOAREN ORDUTEGIA**
Asteartetik ostiralera: 10:00-14:00 eta 16:00-18:30
Larunbatetan: 10:00-14:00
Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00
Astelehenetan itxita

 Ezgaitasuna duten pertsonentzako **SARBIDE**
ETA ZERBITZUAK

 museoartesaacro@euskalnet.net

 945 15 06 31

 **SARRERA ETA BISITAK DOHAINIK**



JAIOTZA NAPOLITARRA

ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA

Vitoria - Gasteiz





JAIOTZA NAPOLITARRA. Buztin erreka eta polikromatua, egurra, haria, burdin haria eta ehunak. XVIII. mendearen bigarren erdia. Félix Alfaro Fournierrek Arabako Foru Aldundiari egindako dohaintza. Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa. Gasteiz.

ESZENA

Konposizio honek Eguberrietako hiru pasarte erakusten ditu. Gai nagusia Jesusen **Jaiotza da** eta eskaileren goi aldean nabarmendua dago. Eszena horrekin nahastuta **Errege Magoen Gurtza** ageri da, izan ere, Meltxor Haurraren alboan belaunikatuta dago eta Gaspar eta Baltasar, aldiz, gertakarirantz igotzen ari dira. **Artzainen Deikundea** harkaitzen ondoan ikusten da, bertan aingeru samur bat berria ematen ari zaie eta. Napoliko biztanleak pasarte sakratutik kanpo daude, beren eguneroko zereginekin lanpetuta: ezkaratzetan hizketan ikusten ditugu, merkataria bat fruta eta ogia saltzen, jendea iturria eta artzainak menditik itzultzen.

ESZENATOKIA

Eszenografia **hiru espazio** ezberdinetan banatua dago: tenplu klasiko baten aurriak, Napoliko kale komertzial bat eta harkaiztegi natural bat. **Tenpluak** Jesusen aurreko erlijioa irudikatzen du eta Jaiotza aurri horietan kokatua dago, hain justu, kristautasunak paganismoaren gainean izandako garaipena adierazteko. **Kalea**, bere denda nahiz jende zalapartatsua barne, Napoliko XVIII. mendeko herriko bizitza erakusteko agertzen da. **Harkaitzezko paisaiak** natura bukolikoari egiten dio aipamena eta, aintzinako eraikuntzen aurriekin batera, garaiko pinturan oso modan zegoen gai bat da.

FIGURAK

Beren ezaugarriak hauek dira: errealismoa, xehetasun fina, nortutako aurpegiak eta espresio nabarmenak aurpegietan eta eskuetan. Artikulatuak direnez, jarreraz alda daitezke. Horrez gain, urruntasun ilusioa sortzeko hiru eskalatan eginak daude. Adin eta ezaugarri askotakoak dira: gazte zein agure, edertasun idealizatukoak eta lanean sarri ibilitakoak. Erregearen gortean beste arrazatako pertsonaia batzuk ere badira, azal ilunekoak, kaskamotzak eta bibote sarriak dituztenak.

FINIMENTIAK

Bizitza errealeko objektuak erreproduzitzen dituzten osagarriak dira, esaterako, fruitu, arrautza eta barazki saskiak, adar pilo... Beren jatorrizko materialekin eginak daude, arrautza, fruitu eta barazkiak argizarizkoak izan arren. Osagarri hauek konposizioa aberasten dute eta funtsezkoak dira jaiotza napolitarretan.



JANTZIAK

Arropak XVIII. mendeko Napoliko jantzien **miniatutzako erreprodukzioak** dira eta garai hartako gizarte klaseak islatzen dituzte. Jorienak metalezko hariz brodatutako zetan eginak daude, xehetasun handiz gainera, botoiak, litsak eta parpailak baitituzte.

ANIMALIAK

Finimenti hauek ezinbestekoak dira jaiotza batean. Ardiak, ahuntzak, ahariak, astoak eta oiloak **xelebrekeria eranstean duten** etxeko animaliak dira. Halaber, jaiotza napolitarretako erregearen gorte arranditsuetan begien bistan geratzen da urrutikoa eta exotikoa gustuko zutela. Horra hor bi tximu egotearen arrazoa.



TEKNIKA ETA MATERIALAK

Figuren gorputza burdin harizkoa da, iztupa eta hariz estalia. Besoak eta hankak, ordea, egur zizelkatuan eginak daude. Buruak edo **testinak** terrakotan modelatuak (buztin erreka) eta olioan polikromatuak daude. Begiak beirazkoak dira.



Testuak: Itzar Aguinagalde eta Ainzane Erkize. Argazkiak: Juan Quintas, ALET Restauraciones S.L. eta ORALI Diseinua. DRN.